Kodea:
2025AKM50001

BETERRI BURUNTZA

Baldintza Teknikoen Plegua **Pliego de Condiciones Técnicas**

MAILTRAN softwarearen mantenua eta ostatatzea
Mantenimiento y alojamiento del software MAILTRAN

Kontratu mota Tipo de contrato	**Zerbitzuak** / Servicios	**Prozedura** Procedimiento	**Irekia** / Abierto	**Esp. Kodea** Código Exp.	**2025AKM50001**
Lizitazio elektronikoa Licitación electrónica	☒ **Bai** / Sí ☐ **Ez** / No	**Tramitazioa** Tramitación	☒ **Ohikoa** / Ordinaria ☐ **Premiazkoa** / Urgente		

Ezaugarri Teknikoak

1. Kontratuaren xedea

Kontratu honen xedea MAILTRAIN softwarea mantentzea eta ostatatzea da.

MAILTRAIN mailina bidaltzeko tresna bat da, software librekoa eta norberaren zerbitzarian instalatzea ahalbidetzen duena, datuak kontrolatu ahal izateko.

2. Iraupena

Kontratistak aipatutako softwarearen mantenimendua eta ostatua eskaini beharko ditu, kontratu honen xede dena kontratuaren hasierako iraupeneko lehen bi urteetan, gehi, hala badagokio, beste bi urteko iraupena izan dezakeen balizko luzapena.

3. Sekretua eta konfidentzialtasuna

Lizitatzaileek eta esleipendunak konpromisoa hartuko dute isilpeko tratua emateko informazio guztiari, eta, bereziki, izaera pertsonalekoari, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren arabera. Erregelamendu hori datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, eta enpresa lizitatzaileak edo esleipendunak Beterri Buruntza Mankomunitatetik lor dezakeen 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du. Halaber, konpromisoa hartuko dute informazio hori zaintzeko eta bere ardurapeko langileek ez zabaltzeko, salbu eta Administrazio honek idatzizko baimena ematen badu. Betebehar hori indarrean egongo da, kontratua amaitzen denean edo deuseztatzen denean ere. Hori guztia Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen arabera.

Prescripciones Técnicas

1. Objeto del contrato

Es el objeto de este contrato el mantenimiento y hospedaje del software MAILTRAIN.

MAILTRAIN es una herramienta de envío de mailin, de software libre y que permite la instalación en servidor propio para permitir el control de datos.

2. Duración

El contratista deberá ofrecer el mantenimiento y hospedaje del software mencionado y que es objeto de este contrato durante los primeros dos años de duración inicial del contrato, más, en su caso, la eventual prórroga que pudiera haber de una duración de otros dos años.

3. Secreto y confidencialidad

Tanto los licitadores como el adjudicatario se comprometerán a dar un trato reservado y confidencial a toda la información y especialmente a la de carácter personal de conformidad con el Reglamento (UE) 2016/679, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE, que la empresa licitadora o adjudicataria pudiera obtener de la Mancomunidad Beterri Buruntza y a procurar su custodia y no divulgarla por el personal a su cargo, salvo que medie la autorización por escrito por parte de esta Administración. Esta obligación estará en vigor aun cuando el contrato haya llegado a su término o haya sido cancelado. Todo ello, de acuerdo la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público.

Akarregi poligonoa 10, 203-204 bulegoak • 20120 HERNANI • IFZ Q2000624C • Tf: 688761195 • administrazioa@beterriburuntza.eus

4. Datuen babesa	**4. Protección de datos**
Lege honetan araututako kontratuek, datu pertsonalak tratatzea badakarte, oso-osorik errespetatu beharko dituzte Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eta lege hori garatzeko araudia.	Los contratos regulados en la presente Ley que impliquen el tratamiento de datos de carácter personal deberán respetar en su integridad la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, y su normativa de desarrollo.
Kontratazioak berekin badakar kontratistak datu pertsonaletara irispidea izatea, eta datu horien tratamenduaren erantzulea erakunde kontratatzailea bada, tratamendu-eragiletzat hartuko da.	Para el caso de que la contratación implique el acceso del contratista a datos de carácter personal de cuyo tratamiento sea responsable la entidad contratante, aquel tendrá la consideración de encargado del tratamiento.
Kasu horretan, datu horiek eskuratzea ez da datu-komunikaziotzat hartuko, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 12.2 eta 3. artikuluetan aurreikusitakoa betetzen denean. Nolanahi ere, lege horren 12.2 artikuluko aurreikuspenak idatziz jaso beharko dira.	En este supuesto, el acceso a esos datos no se considerará comunicación de datos, cuando se cumpla lo previsto en el artículo 12.2 y 3 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre. En todo caso, las previsiones del artículo 12.2 de dicha Ley deberán de constar por escrito.
Kontratu-prestazioa amaitzen denean, datu pertsonalak suntsitu edo entitate kontratatzaile arduradunari itzuli beharko zaizkio, edo hark izendatutako tratamendu-eragileari.	Cuando finalice la prestación contractual los datos de carácter personal deberán ser destruidos o devueltos a la entidad contratante responsable, o al encargado de tratamiento que esta hubiese designado.
Tratamenduaren hirugarren eragileak behar bezala blokeatuta gordeko ditu datuak, tratamenduaren ardura duen erakundearekin duten harremanetik erantzukizunak erator daitezkeen bitartean.	El tercero encargado del tratamiento conservará debidamente bloqueados los datos en tanto pudieran derivarse responsabilidades de su relación con la entidad responsable del tratamiento.
Hirugarren batek datu pertsonalak tratatzen baditu kontratistaren, tratamenduaren arduradunaren, kontura, baldintza hauek bete beharko dira: a) Tratamendu hori entitate kontratatzaileak eta kontratistak sinatutako kontratuan zehaztu izana. b) Datu pertsonalen tratamendua tratamenduaren arduradunaren jarraibideetara egokitzea. c) Tratamenduaz arduratzen den kontratistak eta hirugarrenak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 12.2 artikuluan aurreikusitako baldintzetan formalizatzea kontratua.	En el caso de que un tercero trate datos personales por cuenta del contratista, encargado del tratamiento, deberán de cumplirse los siguientes requisitos: a) Que dicho tratamiento se haya especificado en el contrato firmado por la entidad contratante y el contratista. b) Que el tratamiento de datos de carácter personal se ajuste a las instrucciones del responsable del tratamiento. c) Que el contratista encargado del tratamiento y el tercero formalicen el contrato en los términos previstos en el artículo 12.2 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre.
Kasu horietan, hirugarrena ere tratamenduaren eragiletzat hartuko da.	En estos casos, el tercero tendrá también la consideración de encargado del tratamiento

Akarregi poligonoa 10, 203-204 bulegoak • 20120 HERNANI • IFZ Q2000624C • Tf: 688761195 • administrazioa@beterriburuntza.eus

5. Informazio- eta komunikazio-sistemen kokapena Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 46.bis artikuluaren arabera, besteak beste, datu pertsonalen tratamenduak bildu, biltegiratu, prozesatu eta kudeatzeko informazio- eta komunikazio-sistemak Europar Batasunaren lurraldean kokatu eta eman beharko dira. Aurreko paragrafoan aipatutako datuak ezin izango zaizkio hirugarren herrialde edo nazioarteko erakunde bati transferitu, Europako Batzordearen egokitzapen-erabaki baten xede izan direnak edo Espainiako Erresumak bere gain hartutako nazioarteko betebeharrak betetzeak hala eskatzen duenean izan ezik.	**5. Ubicación de los sistemas de información y comunicaciones** En virtud del art.46.bis de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público (LRJSP), los sistemas de información y comunicaciones para la recogida, almacenamiento, procesamiento y gestión de, entre otros, los tratamientos de datos personales, deberán ubicarse y prestarse dentro del territorio de la Unión Europea. Los datos a que se refiere el apartado anterior no podrán ser objeto de transferencia a un tercer país u organización internacional, con excepción de los que hayan sido objeto de una decisión de adecuación de la Comisión Europea o cuando así lo exija el cumplimiento de las obligaciones internacionales asumidas por el Reino de España.

JULEN MUNGIA GORROTXATEGI - 72546623T

Firmado digitalmente por JULEN MUNGIA GORROTXATEGI - 72546623T
Fecha: 2025.02.04 15:29:03 +01'00'

Akarregi poligonoa 10, 203-204 bulegoak • 20120 HERNANI • IFZ Q2000624C • Tf: 688761195 • administrazioa@beterriburuntza.eus